



AGINDUA, 2022KO URRIAREN 18KOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ERABAKITZEN DUENA HASIERA EMAN DAKION SAIL HORREN BERAREN EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETUA HIRUGARRENEZ ALDATZEKO PROZEDURARI.

Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeko 12.1 artikuluan xedatzen denez (hemendik aurrera, 6/2022 Legea), xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen sailburuaren agindu baten bidez hasiko da.

Bada, agindu honen xedea da prozedura bat abiaraztea dekretu bat onartzeko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko Dekretua aldatzeko, eta, horregatik, sail horren egitura organiko eta funtzionalaren erregulazioa egingo denez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuari dagokio prozedura hasteko agindua emateko eskumena.

Baina, zer jaso behar du abiaburuko agindu honek? 6/2022 Lege horretako 13.1 artikuluan ezarrita dagoenez, arauaren xedea eta helburuak azaldu beharko ditu labur-labur; legez eta materiaz bideragarria zenbateraino den jakiteko balioespena; ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioen aurreikuspena; dossier erantsi batean, inpaktu-ebaluaketak, ondorio-ebaluaketak edo egin zaion beste edozein ebaluaketa ekarri beharko ditu, edo ukitu beharko dituen xedapenak; aurrekontuetan zer eragin izango duen gutxi gorabehera; gaia eta edukia kontuan hartuta egin beharrekotzat jotzen diren tramite eta txostenen zerrenda, azalduz orobat -gaiaren bereziari begira edo helburuak gogoan- ea tramite derrigorrik gabeko bakoitza zergatik den eraginkorra, neurrikoa eta beharrezkoa, eta azalduz, gainera, Europar Batasunean ere inolako tramiterik eskatzen duen; ukituko bide dituen subjektu eta antolakunde esanguratsuenen lehen identifikazio bat, edo, hala badagokio, herritarren partaidetza bideratzeko tramiteak zergatik utzi diren egin gabe, edo zergatik den zilegi legegintza-ekimenak urgentziaz tramitatzea eta jendaurreko epeak laburtzea; zer teknika erabiliko den testu artikuluduna itzultzeko edo ele bietara idazteko; instrukzioa zer administrazio-organori agintzen zaion; eta, dena delako araua ez baldin bada agertzen urteko araugintza-planeari -ez baita agertzen-, zergatik den egoki eta zuzen haren tramitazioa egitea.

Era berean, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da, eta, argitaratzearekin batera, era automatikoan jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren bidez kotasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Dekretu-proiektuaren helburua eta xedea, eta zenbateraino de bideragarria legez eta materiaz.

2022ko irailaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Lehendakariaren irailaren 23ko 18/2022 Dekretua argitaratu zen. Dekretu horrek honako Dekretu hau bigarren aldiz aldatu zuen: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen. Ikus dezagun zer jartzen duen lehen eta bigarren artikuluetan:

Lehenengo artikulua. – Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 3. artikulua lehen paragrafoari i-bis apartatua gehitzen zaio.

«i-bis) Gazteria».

Bigarren artikulua.- Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 13. artikuluko lehen paragrafoa p) apartatua aldatu egin behar da, eta aurrerantzean honela geratuko da:.



«p) Haurtzaroa. Nerabezaroa. Adingabeen babes»

Azken batean, 18/2022 Dekretua indarrean jarri zenetik, gaztedia jada ez dago Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren eskumenen artean, eta Jaurlaritzaren Lehendakari izari dagozkion eskumenen barruan sartu da. Hori dela eta, orain, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egiturari buruzko Dekretua aldatu egin behar da, eskumen-banaketa berrira egokitzeko.

Aldaketa hori izapidetzeko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena ekainaren 30eko 6/2022 Legeak horri buruz arautzen duena beteko da.

Ordenamendu juridikoan dituen ondorioak.

Aldaketa-dekretua onartzeak eta argitaratzeak berekin ekarriko du urtarilaren 19ko 12/2021 Dekretua hirugarrenez aldatzea. Han dago ezarrita Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala, eta, aurrerantzean, gazteria ez da haren eskumenpekoa izango.

Aurrekontuetan izango dituen ondorioak.

Espedientean memoria ekonomiko bat txertatu beharko da, eta proiektatutako arauak aurrekontuetan izan ditzakeen ondorioak zehaztu beharko dira memoria horretan, honako hauetan ezarritakoa betez: batetik, 464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen (42. eta 43. artikulua), eta bestetik, 6/2022 Legea (13 eta 15 artikulua).

Administrazio-kargak eta enpresa txiki eta ertainen gaineko inpaktua.

Ekintzailatza sustatzeaz den bezainbatean, antolaketa-erakunde deklaratiboen proiektu honek ez du inolako eraginik enpresak sortzeko eta funtzionatzeko administrazio-kargetan.

Espedientean, ebaluazio-txosten bat jaso beharko da, enpresak sortzean, abian jartzean eta haien funtzionamenduan gerta daitezkeen inpaktuari buruzkoa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6.1 artikuluan xedatuta dagoena betez.

Egin behar diren izapideak eta txostenak

Prozedura osoaren izapidetzea (ondoren deskribatzen da, beharrezkoak diren txostenekin batera) izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bitartez gauzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait prozedura modu elektronikoan izapidetzeko jarraibideak onartzeko Gobernu Kontseiluaren 2012ko azaroaren 27ko Erabakiari jarraikiz.

Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, lehenik eta behin, Xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuan xedatuta dagoenaren arabera, hasiera emateko agindu hau Legesarea izeneko lankidetzaren espazioan argitaratuko da.

Era berean, eta 6/2022 Legeko 13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, prozedura hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko

da, eta, argitaratzearekin batera, era automatikoki jakinaraziko zaie sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren bidezketasunari eta egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten.

Ondoren, arau-xedapena idatziko da, hasiera-agindu honen edukiari eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko egokitzat jotzen diren kontsulten emaitzei jarraikiz. Behin proiektua idatzita dagoela, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak onartuko du aldez aurretik, 6/2022 Legearen 15. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Artikulu horren arabera, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedurari hasiera emateko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpenera eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Aldez aurretik onesteko agindua eta arau-proiektua Legesarea izeneko lankidetz-espazioan argitaratuko dira, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuan xedatuta dagoenaren arabera.

Gainera, honako izapide eta txosten hauek egingo dira, gerora espedientean txertatzeko:

- 1.– Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Aholkularitza Juridikoaren txostena.
- 2.– Proposatutako araudiaren eraginpean egon daitezkeen sailei egindako kontsulta.
- 3.– Herriarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digmaletako Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko apirilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
- 4.– Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera.
- 5.– Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6. artikuluan xedatua oinarri hartuta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 17. artikuluan den bezainbatean.
- 6.– Legezketasun-txostena, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzarena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikuluan aurreikusitakoa betez.
- 7.– Kontrol ekonomiko eta arau-emaietaren txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak igorri beharrekoa, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak) III. titularen IV. kapituluaren xedatutakoaren arabera.
- 8.– Bestalde, generoaren araberrako eraginaren aldez aurreko ebaluazioa egiteari eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko neurriak sartzeari buruzko jarraibideetan ezarritakoaren arabera, 2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluan onartu bezala, Lehen Jarraibideko 2.1.b artikulua ezartzen du proiektuak ez duela eduki beharko generoaren araberrako eraginaren txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoa, antolaketa-hutsekoa delako. Hala eta guztiz ere, proiektua Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeari helarazi beharko zaio; izan ere, 4/2005 Legearen 21. artikuluan araberrako, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esparruan prestatzen diren arau-proiektuei buruzko txostena eman behar du, lege honen 19. eta 20. artikuluetan xedatzen dena egoki aplikatzen dela egiaztatzeko eta, hala badagokio, artikulu horien edukiarekin lotuta dauden hobekuntza-proposamenak egiteko.
- 9.– Orobat, ez da ikusten Europar Batasunean inolako izapiderik egiteko beharrik.



10.– Azkenik, eta Gobernu Kontseiluak araua onartu baino lehen, prozedura osoaren memoria labur bat prestatuko da. Memoria horretan aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dira, 6/2022 Legearen 24 artikulua ezarritakoarekin bat etorrira.

Entzunaldia eta jendaurreko informazioa, negozioz kolektiboa eta beste administrazio batzuei kontsulta egitea

Ekimena salbuetsita dago entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren eta negozioz kolektiboaren izapideetatik, bai eta autonomia-erkidegoko beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haien kontsulta egiteko izapideetatik ere; izan ere, antolakuntzakoa da soilik, eta ez die eragiten autonomia-erkidegoko beste administrazio batzuei, aipatutako 6/2022 Legearen 8. eta 9. artikuluen arabera.

Testu artikulatuaren idazketa elebiduna

Begira dezagun zer xedatzen den 6/2022 Legeko 27.3 artikuluan, eta ikusiko dugu azkenean onartu behar diren eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar diren testuen euskarazko bertsioa eta gaztelaniazko bertsioa zehatzak eta baliokideak izan direla, eta, horretarako, argitaratzeko bidaltzen den testuak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IZO) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak emandako zehaztasun-eta baliokidetasun-ziurtagiria izango duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin bat etorriz.

Zer organok egingo duen espedientearen instrukzioa

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritza izango da prozeduraren instrukzioaz arduratuko den organoa.

Urteko araugintza-plana.

Sailaren egiturari buruzko dekretuaren aldaketa hau ez dago jasota Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2022ko otsailaren 18ko Aginduan, eta haren bidez onartu zen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2022ko arau-plangintza. Izan ere, Lehendakariaren irailaren 23ko 18/2022 Dekretua bera ere duela gutxi argitaratu da, eta aldaketa hau hain zuzen ere handik dator, haren bidez aldatu baita, bigarren aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Dekretua.

Aurrekoak kontuan hartuz eta 8/2022 Legean ezarritakoa betetze aldera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena. Hasiera ematea Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen Dekretua hirugarrenez aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.



Bigarrenena. Zerbitzu Zuzendaritza izendatzea goian aipatutako prozedura izapidetzeko ardura duen organotzat.

Hirugarrena. «Legesarea» izeneko lankidetzagunean agindu honen berri ematea, Xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartu zituen Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoa betez.

Laugarrena. Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan argitaratzean, hango iragarki-taulan, 6/2022 Legeko 13.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Bosgarrena. Egin beharreko azterlan, txosten eta kontsultak egitea, araua eratzeko eta hura egokia eta legezkoa dela bermatzeko.

Seigarrena. Xedapen orokorrak izapidetzeko eredua eta Tramitagune aplikazio informatikoa erabiltzea, Gobernu Kontseiluaren erabaki hauekin bat etorruta: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, izaera orokorreko xedapenen izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 18a.

Sinadura: BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA